


OÑATI
dabilen herria



OÑATIKO UDALA

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

2023-2026KO Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Ikusirik, 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren indarraldia amaitzera doala eta 2023-2026koa izapidetu duela Oñatiko Udalak.

Ikusirik, 2022-10-11ko Ogasun Batzordeak, aho batez, aldeko irizpena ematen diola aipatu 2023-2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoari

Horrenbestez, nik, Oñatiko Alkate naizen honek, honen bidez erabakitzen dut:

- Onartzea 2023-2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa
- Oñatiko weborrian argitaratzea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin 2022ko urriaren 11n

ALKATEAK

Izaro Elorza Arregui